

- Eleneri merezi duena eman behar diogu - esan zion Plasek Plisi.
- Kirola hainbeste gustatzen zaionez, kirolean gauza bat egin beharko diogu
 - esan zuen Plisek.
- Badakit!, futbolera joasten duen bitartean ez diogu korrika egiten utziko
 - esan zuen Plasek.
- Ideia ona izan duzu Plas! - ezan zion Plisek.

Bat-batean Elene izartu egin zen hotz batzuk entzun baitzituen.

- Norbait dago hor? - galdetu zuen.

Bere botak baino ez zituen ikusten, eta lokartu egin zen.

Plasek Plisi esan zion:

- Plis, bihar entrenamendura joaten denean bere eskarmentua emango diogu.
- Ederki! orain lo egin behar dugu, gabon - esan zuen Plisek.
- Gabon Plis bihar arte, gabon - erantzun zion Plasek.

Hurrengo egunean, eskolara joan zen eta gero entrenamendura. Entrenamenduan korrika egin behar izan zuten, baina Elenek ezin izan zuen korrika egin, eta entrenatzaileak esan zion:

- Aupa Elene horrela ez zara inora helduko! - esan zuen entrenatzaileak.
- Ezin dut korrika egin!- esan zion Elenek entrenatzaileari.
- Ez ibili txantxetan eta zoaz korrika egitera! - esan zion entrenatzaileak.
- Baina entrenatzaile jauna, nik korrika egin nahi dut eta ezin dut - esan zion Elenek.

Entrenamendua amaitu zenean Elene etxera triste joan zen. Etxean bere logelara joan zen, eta botak kendu zituen. Orduan Plis eta Plas berarekin hitz egiten hasi ziren:

- Elene ez jarri hain triste! - esan zuten Plisek eta Plasek.

Elenek bere botei begiratu zien harrituta.

- Hitz egiten al duzue? - galdetu zien botei.
- Bai, guk berba egiten dugu. - esan zuten biek.
- Baina hori oso arraroa da! - Elene harrituta zegoen.
- Bai, badakigu oso arraroa dela - esan zuten Plisek eta Plasek.
- Ni Elene naiz eta bederatzi urte ditut. - esan zuen Elenek.